ZERGATIK ESKAINTZEN DUGU ZERBITZU HAU?

Landaolak, Gipuzkoako lurraldean Landa Garapenerako Elkarteen bitartez jarduten duen eragile gisa, lehen sektorea eta landa ingurunea eraldatzeko prozesuak babestea xede du, balio erantsi handiagoa sortuko duten lankidetza proiektuak sustatuz.

ZER BEHARREI ERANTZUTEN DIO ZERBITZUAK?

Lehen sektoreko eta nekazaritzako elikagaien balio kateko eragileen arteko lankidetza sustatzea, metodologia eta kultura berrikuntza gisa.

ZER ESKAINTZEN DU LANDAN EKIN ZERBITZUAK?

Eskualde bakoitzeko Landa-Garapeneko Elkarteen laguntza indibidualizatua.

Eragile laguntzaile izan daitezkeenekin harremanak erraztea.

Lankidetza proiektuak diseinatu, aktibatu eta abiarazteko 30 orduko doako aholkularitza zerbitzua.

NORI ZUZENDUA?

Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien balio kateko mikroenpresa eta pertsona ekintzaileei.

Hazi, hobetu, indartu eta merkatuko joera berrietara egokitu nahi duten eta lankidetzara eta aldaketara irekita dauden pertsona autonomo eta mikroenpresei.

Informazio gehiago: www.landaola.eus

LANDAOLA
GIPUZKOAKO FEDERAZIOA
FEDERACIÓN DE GIPUZKOA

LANDAN EKIN

ZERBITZUA

LANDAN EKIN

LANDA EKIN, NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN BALIO-KATEKO PROIEKTUEN BALIO ERANTSIA HANDITZEA BILATZEN DUEN ZERBITZUA DA, ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZAK BULTZATUZ ETA ALIANTZA ADIMENDUNEN METODOLOGIA APLIKATUZ

ZER ESKAINTZEN DIZU LANDAOLAK?

Zure enpresaren hazkunde iraunkorrerako, lankidetzan sakontzeko laguntza-zerbitzua:

- Lankidetza modu egokian sortzen lagundu.
- Lankidetzak eratzeko prozesua artatu, ulertu eta babestu.
- Lankidetza proiektua diseinatzen lagundu.

ZER LORTZEN DU PARTE HARTZEN DUEN ERAGILEAK?

- Sektorearen joera berriak ezagutzea.
- Lankidetzan bidelagun izan daitezkeen eragileak ezagutzea.
- Intereseko eragileekin zuzenean harremanetan jartzeko aukera.
- Lankidetza proiektuak diseinatu, aktibatu edo/eta abiarazteko laguntza.
- Lankidetza alorreko dirulaguntzei buruzko aholkularitza.
- Zure proiektuarentzat garapenerako aukera biderkatzailea.

ZERTAN DATZA LANDAN EKIN ZERBITZUA?

Gipuzkoako nekazaritzako elikagaien balio kateko enpresen eta pertsona ekintzaileen arteko sinergiak eta lankidetza proiektuak bultzatzeko laguntza zerbitzua.

LANDAN EKIN

LAGUNTZAILEAK:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral

hazi